

UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN BILERAREN AKTAREN LABURPENA

2019ko ekainaren 25eko 8:30etan, Bilboko Ikerbasqueren egoitzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziako zuzendari Eva Ferreira andrea, Ruth Zimmerling andrea, Barbara Potthast andrea, Salustiano Mato jauna, Diego Sánchez jauna, Manuel de León jauna, Alfonso Novales jauna eta Endika Bengoetxea jauna eta Jean-Yves Puyo jauna.

Ezin etorria adierazi dute: Eunate Elio andreak y Cristina Iturrioz andreak.

Unibasqen aldetik Aitor Zurimendi jauna (Zuzendari Ondokoa) eta Eva Fdz. De Labastida andrea (Nazioartekotze eta Proiektuen arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren eta akta irakurri eta onartzea. (O)
Akta onartu da.
2. Zuzendariaren txostena.
3. Unibasqen Titulazioen egiaztapenarako ebaluaziorako dokumentua (O)
Dokumentua onartu da.
4. Biregiaztapen instituzionalarako dokumentua. (O)
Dokumentua onartu da.
5. UPV/EHUko gehigarriko ordainsari Osagarriak ebaluatzeko programaren egoera.
6. Plan estrategikoa.
7. Galderak eta eskaerak.

(O) Onarpen puntua.